

**LAGRÁN****2710****Lagrange Arau Subsidiarioen testu bateratua jendaurrean jartzea.**

Lagrange Udalak, 2009ko martxoaren 23ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Lagrange udalerriko arau subsidiarioen testu bateratuari, bertan jasotzen direla behin betiko onartzeko zen dokumentuaren funsezko aldaketak. Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza eta Ingurumen Sailaren 2007ko maiatzaren 14ko Foru Aginduak 3. xedapenean adierazitakoari jarraituz, jendaurrean jartzeko izapidea egingo da HILABETEZ, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horrean hirigintzako dokumentazioa aztertu eta alegazioak aukeztu ahal izango zaizkio.

Lagrange, 2009ko martxoaren 30a.- Alkatea, JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ.

**LANTZIEGO****2741****Jaxad Naghami ofizioz baja ematea**

Lantziegoko Udalak Jaxad Naghami-k udal erroldan izena eman duela jakin du. Egoitza txartela: X6394481K; helbidea: Laguardia errepidea, 30- 21 apartamentua. Horrek emandako helbidea eta ohiko etxebizitzaz ez dator bat. Beraz, alkateak, 2009ko apirilaren 3ko probidantzat baten bidez, erabaki zuen bere kabuz dagokion expedienteari hasiera ematea pertsona horri udal biztanle erroldan baja emateko eta jakinarazteko, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hamabost egun dituela egoki deritzen alegazioak aurkezteko.

Lantziego, 2009ko apirilaren 6a.- Alkatea, MANUEL ZABALA GONZÁLEZ.

**MOREDA DE ÁLAVA****2700****Udalerrriko hiriburuaren izena aldatzea**

Moreda de Álavako Udalak, 2009ko apirilaren 1eko ohiko osoko bilkuran, besteak beste erabaki zuen Moreda de Álavako udalerriko hiriburuaren izena aldatzeko proposamena onartzea. Erabaki horrek honako proposamen hau onartu zuen: hiriburuak aurrerantzean MOREDA DE ÁLAVA/MOREDA ARABA izena izatea.

Espedientea hilabetez jarriko da jendaurrean, jendeak aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak eta oharra egin ahal izan ditzen.

Moreda de Álava, 2009ko apirilaren 6a.- Alkatea, MIRIAM GARRIDO REMÍREZ DE GANUZA.

**MOREDA DE ÁLAVA****2702****Behin betiko onartzea udal pilotalekuaren erabilera arautzen duen ordenantza.**

Udalak 2008ko azaroaren 27ko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zion udal pilotalekuaren ordenantzaren expedienteari. Espedientea jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren

**LAGRÁN****2710****Información Pública del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Lagrán.**

Por parte del Ayuntamiento de Lagrán en pleno de fecha 23 de marzo de 2009 se ha acordado aprobar definitivamente el texto refundido de Normas Subsidiarias del municipio de Lagrán, habiéndose introducido en el mismo modificaciones sustanciales respecto al documento objeto de aprobación definitiva. Por todo lo expuesto, y conforme a lo indicado en el dispongo tercero, de la Orden Foral del departamento de Urbanismo y Medio Ambiente de Diputación Foral de Álava de 14 de mayo de 2007, se procede a realizar un trámite de información pública por un periodo de UN MES a contar desde la publicación de este anuncio en el BOTHA, durante el cual podrá examinarse la documentación urbanística y formular alegaciones a la misma.

Lagrange, 30 de marzo de 2009.- El Alcalde, JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ.

**LANCIEGO****2741****Baja de oficio de Jaxad Naghami**

El Ayuntamiento de Lanciego, habiendo tenido conocimiento de que la declaración de inscripción padronal de Jaxad Naghami, Tarjeta de Residencia: X6394481K, Domicilio: Ctra. Laguardia, 30-Apartamento 21, no coincide con el domicilio de residencia habitual, por providencia de alcaldía de fecha 3 de abril de 2.009, acordó incoar de oficio el oportuno expediente para proceder a darle de baja en el Padrón Municipal de Habitantes de este Municipio y comunicar el acuerdo, dándoles audiencia en el expediente a fin de que puedan presentar las alegaciones pertinentes en el plazo de quince días a partir del siguiente a la publicación del presente anuncio en el BOTHA.

Lanciego, a 6 de abril de 2009.- El Alcalde, MANUEL ZABALA GONZÁLEZ.

**MOREDA DE ÁLAVA****2700****Cambio de denominación de la Capital del Municipio**

El Ayuntamiento de Moreda de Álava, en Sesión Ordinaria, celebrada el día 1 de abril de 2009, adoptó el acuerdo, entre otros, de aprobar la propuesta de cambio de nombre oficial de la capitalidad del Municipio de Moreda de Álava, por MOREDA DE ÁLAVA/MOREDA ARABA.

Lo que se hace público, por plazo de un mes para que examinado el expediente puedan formularse las reclamaciones y observaciones que se estimen procedentes.

En Moreda de Álava, a 6 de abril de 2009.- La Alcaldesa, MIRIAM GARRIDO REMÍREZ DE GANUZA.

**MOREDA DE ÁLAVA****2702****Aprobación definitiva de la Ordenanza Municipal reguladora de la utilización del frontón municipal.**

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Ayuntamiento, en sesión plenaria celebrada el día 27 de noviembre de 2008, el expediente confeccionado para aprobar la Ordenanza de Uso de Frontón que a continuación se detalla, y no habiéndose presentado

2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikulan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikulan xedatutakoarekin bat etorri, oso-osorik ematen da argitara.

## MOREDA DE ÁLAVAKO UDAL PILOTALEKUAREN ERABILERARI BURUZKO ORDENANTZA

### ATARIKO TITULUA Xedea eta aplikazio eremua

#### **1. artikula.**

1. Ordenantza honek Moreda de Álavako udal pilotalekuaren erabilera komun eta bakarra arautzen du.
2. Pilotalekua 10:00etatik 22:00etara erabili ahal izango da.
3. Debekatuta dago pilotalekuaren animaliak sartzea.

#### **2. artikula.**

1. Ordenantza hau erabiltzaile guztiei aplikatuko zaie, ohikoak zein noizbehinkakoak izan.
2. Ordenantza honen berri ez izateak ez du betebeharretik salbuesten.

#### I. TITULUA

##### I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

#### **3. artikula.**

1. Begirale baten aginduetara udalak antolatutako edo diruz lagundutako jarduerak egiten dituztenek alkatetzak xedatutakoak beteko dituzte.
2. Berariaz debekatzen da gaua pilotalekuaren ematea.
3. Ezinbestean edo larriuneetan, alkatearen erabaki bidez baimendu ahal izango da gaua eman ahal izatea.

#### II. KAPITULUA

##### Erabiltzaileen eskubide eta betebeharak

#### **4. artikula. Pilotalekua erreserbatzea.**

Eskerako ordubetez erreserbatu ahal izango da pilotalekua.

Pilotalekua astelehenetik ostiralerla, 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 22:00etara, erreserbatu ahal izango da, salbu eta maiztaren 15ean, urriaren 22an, uztailaren 15etik abuztuaren 31ra, abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra eta Aste Santuan.

Pertsona edo talde bakoitzak pilotalekua, gehienez, bi hilabetez erreserbatu ahal izango da. Horretarako, aldez aurretik dagozkion tasak ordaindu behar izan ditu. Bi hilabete horiek luzatu egin ahal izango dira, baldin eta beste inor ez badago itxaron zerrendan.

Erreserbak Moreda de Álavako Udalean egingo dira, astelehenetik ostiralerla, 10:30etik 13:30era.

Erreserbatutako orduak erreserba-agiri bidez egiaztatuko dira. Agiri hori, erabiltzaile orok eska lezakeena, Moredako Udalak emango du.

Eskaera ugari badago, izena ematean izandako hurrenkera hartuko da aintzat. Dena den, Moreda de Álavako biztanleek lehen-tasuna izango dute.

17:00etatik 19:00etara polikiroldegia Moredako umeentzat egongo da erreserbatuta egunero.

**5. artikula.** Erabiltzaileek onik zaindu beharko dute polikiroldegia. Horretarako, zakarrontziak erabiliko dituzte, bai eta egoki instalazio barruko gai oro ere, hala nola, argiak, ateak, sareak, saskiak, leihoa... Halaber, jarduna bukatutakoan, instalazioak behar bezala utziko dira.

reclamaciones durante el periodo de su exposición al público, queda definitivamente aprobado, por lo que se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor, a efectos de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, y en el artículo 16 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales.

## ORDENANZA SOBRE LA UTILIZACION DEL FRONTON MUNICIPAL DE MOREDA DE ÁLAVA

### TITULO PRELIMINAR Objeto y ámbito de aplicación

#### **Artículo 1.**

1. La presente ordenanza regula el uso común y privativo del frontón municipal de Moreda de Álava
2. El horario de uso del frontón será de 10:00 h. a 22:00 h.
3. Está prohibido el acceso de animales al recinto deportivo.

#### **Artículo 2.**

1. La presente ordenanza será de aplicación a todos los usuarios de dicha instalación, habituales u ocasionales.
2. La ignorancia del contenido de la presente ordenanza no exime de su cumplimiento.

### TITULO I

#### CAPITULO I Disposiciones generales

#### **Artículo 3.**

1. Aquellas personas que realicen actividades organizadas o subvencionadas por el Ayuntamiento bajo las indicaciones de un monitor, estarán a lo dispuesto por la Alcaldía.
2. Queda expresamente prohibida la pernocta en el frontón.
3. Si se dieran casos de fuerza mayor o de emergencia, por Decreto de Alcaldía se decidirá la autorización de pernoctar.

#### CAPITULO II

##### Derechos y obligaciones de los usuarios

#### **Artículo 4. Reserva del uso del frontón.**

Las reservas serán de una hora por solicitud.

El frontón se reservará únicamente de Lunes a Viernes de 10 h. a 12 h. y de 19 h. a 22 h. (Excepto los días 15 de Mayo, 22 de Octubre, y los comprendidos entre el día 15 de julio y 31 de Agosto, y entre el 23 de diciembre y el 6 de enero, así como los de Semana Santa.).

Cada persona o grupo, podrá reservar el frontón por un plazo máximo de dos meses, previo pago de las correspondientes tasas. Ese plazo podrá ser ampliable en el supuesto de que no existiera ninguna petición en lista de espera.

La reserva se hará en el Ayuntamiento de Moreda, de lunes a viernes, en horario de 10:30 h. a 13:30 h.

Las horas reservadas se demostrarán mediante justificante de reserva, expedido por el Ayuntamiento de Moreda, el cual será exigible por cualquier usuario.

En el supuesto de que existan varias peticiones, se atenderán por orden de inscripción, teniendo siempre prioridad los residentes en el municipio de Moreda de Álava.

Todos los días de 17:00 a 19:00h. estará reservado a los niños y niñas de Moreda.

**Artículo 5.** Todo usuario tiene la obligación de mantener las instalaciones en su debido orden, utilizando las papeleras de las que se dispone; utilizando adecuadamente todo lo que se encuentre dentro de la instalación (luces, elementos deportivos como porterías, redes o canastas, puertas y ventanas...); y dejando la instalación en las debidas condiciones, tras finalizar la actividad.

### III. KAPITULUA Ordutegiak eta tarifak

**6. artikulua.** Udalak berak antola ditzakeen jardueretarako erre-serbatu ahal izango du polikiroldegia; batez ere, abuztuko jaietako eta Eguberrieta ospakizunetarako.

**7. artikulua.**

1. Pilotaleku argiak fitxa bidez pizten dira. Fitxa horiek polikiroldegian bertan dagoen kutxa batean diru truke lortu ahal dira. Argi orduko lau euro ordaindoko dituzte herritik kanpokoek eta bi bertakoek. Prezio horiek udalak zehatztuko ditu urtero.

2. Eskolako taldeek, elkarteeek eta irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko erakundeek ez dute ezer ordaindu beharko, baldin eta pilotaleku goizean erabiltzen badute. Dena den, pilotaleku erabili nahi badute, udalean eskatu beharko dute.

Administrazioa

**8. artikulua.** Instalazioen garbi-ikuzia eta mantentzea udal administrazioaren ardura dira, salbu eta jardun berezietan. Jardun berezietan erabiltzailea behartu ahal izango da polikiroldegia garbitzera.

**9. artikulua.** Ordenantza honetan xedatutakoak betetzen diren eta instalazioak gizalegez erabiltzen diren udal administrazioaren ardura izango da.

**10. artikulua.** Ordenantza honetan jasotzen den zehapen araudia aplikatzea ere udal administrazioaren ardura izango da.

### II. TITULUA Diziplina araubidea

#### I. KAPITULUA Hutsegiteak

**11. artikulua.**

Honako hauek dira hutsegite arinak:

a) Instalazioetako zerbitzuak egoki ez erabiltzea.

b) Ez jakinaraztea berehala udalari instalazioetan antzemandako apurketa eta hondamenak.

**12. artikulua.**

Honako hauek dira hutsegite larriak:

a) Instalazioetan kalte handiak egitea.

b) Behin eta berriro egitea hutsegite arinak.

c) Ez betetzea hutsegite arinengatik jarritako zehapenak.

**13. artikulua.**

Honako hauek dira oso hutsegite larriak:

b) Behin eta berriro egitea hutsegite larriak.

a) Instalazioetan oso kalte handiak egitea.

c) Ez betetzea hutsegite larriengatik jarritako zehapenak.

#### II. KAPITULUA Zehapenak

**14. artikulua.**

Hutsegite arinek berekin ekarriko dute pilotaleku astebetez, biz, hiruz edo lauz erabili ezin izana, eta debekualdi horrek dirauen bitartean pilotaleku garbitu behar izana.

**15. artikulua.**

Hutsegite larriez berekin ekarriko dute pilotaleku hilabetez edo biz erabili ezin izana, eta debekualdi horrek dirauen bitartean pilotaleku garbitu behar izana. Horrez gain, halakorik egonez gero, egindako kalteengatik ordaina ordaindu beharko da, bai eta, gehienez ere, hirurehun euroko isuna ere.

**16. artikulua.**

1.- Oso hutsegite larriez berekin ekarriko dute pilotaleku bi, hiru, lau bost edo sei hilabetez erabili ezin izana, eta debekualdi

### CAPITULO III De los horarios de uso y tarifas

**Artículo 6.** El Ayuntamiento se reserva la utilización del mismo para los actos que pudiera programar, en particular durante la celebración de las fiestas patronales en el mes de agosto y en Navidad.

**Artículo 7.**

1. El alumbrado del frontón se regula por fichas, existiendo una caja dispensadora de fichas que funciona con monedas. El precio por hora es de 4 euros para los no residentes y de 2 euros para los residentes, fijándose por el Pleno el precio de cada año.

2. Estarán exentos del pago, grupos escolares, asociaciones u organizaciones no gubernamentales sin ánimo de lucro, que deseen el frontón en horario de mañana, previa solicitud al Ayuntamiento.

De la administración

**Artículo 8.** Compete a la Administración municipal la limpieza y mantenimiento de las instalaciones, salvo en actividades excepcionales en las que podrá obligar al usuario a la limpieza de las mismas.

**Artículo 9.** Compete a la Administración municipal la función de policía para velar por el cumplimiento de la presente ordenanza y de otras normas de comportamiento cívico en las instalaciones.

**Artículo 10.** Correspondrá a la Administración municipal la aplicación del régimen sancionador que esta ordenanza recoge.

### TITULO II Régimen disciplinario

#### CAPITULO I De las faltas

**Artículo 11.**

Son faltas leves:

a) No utilizar adecuadamente los servicios de los que disponen las instalaciones.

b) No comunicar de inmediato al Ayuntamiento los desperfectos o anomalías encontrados en las instalaciones.

**Artículo 12.**

Son faltas graves:

a) Causar graves daños en las instalaciones.

b) La reiteración y reincidencia en faltas leves.

c) No cumplir las sanciones por faltas leves.

**Artículo 13.**

Son faltas muy graves:

a) La reiteración y reincidencia en faltas graves.

b) Causar daños muy graves en las instalaciones.

c) No cumplir las sanciones por faltas graves.

#### CAPITULO II De las sanciones

**Artículo 14.**

La comisión de faltas leves supondrá la prohibición de utilizar el frontón de 1 a 4 semanas y la realización de tareas de limpieza en el frontón durante el mismo periodo que se estipule para la prohibición.

**Artículo 15.**

La comisión de faltas graves supondrá la prohibición de utilizar el frontón de uno a 2 meses, la realización de tareas de limpieza en el frontón durante el mismo periodo que se estipule para la prohibición, el pago de los daños causados, si los hubiere, y el pago de una multa de hasta 300 euros.

**Artículo 16.**

1. La comisión de faltas muy graves supondrá la prohibición de utilizar el frontón de 2 a 6 meses, la realización de tareas de limpieza

horrek dirauen bitartean pilotalekua garbitu behar izana. Horrez gain, halakorik egonez gero, egindako kalteengatik ordaina ordaindu beharko da, bai eta, gehienez ere, hirurehun euroko isuna ere.

2. Oso hutsegite larriengatik jarritako zehapenak betetzen ez badira, zehapenean jarritako denboraren halako biz debekatuta izango du huts egileak udal kirol instalazio orotan sartzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau udalbatzak onartu zuen bi mila eta zortziko azaroaren hogeita zazpiko osoko bilkuran, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea erabakitzet den arte.

Moreda de Álava, 2009ko apirilaren 6a.– Alkate-lehendakaria, MIRIAM GARRIDO REMÍREZ DE GANUZA.

#### MOREDA DE ÁLAVA

2707

##### **Hasierako onarpena. Egikaritze unitateak mugatzea**

Moreda de Alavako Udalbatzak, 2009ko apirilaren 1eko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Moredako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako UE-8 egikaritze-unitatearen mugaketaren banaketari, M<sup>a</sup> José eta M<sup>a</sup> Jesús Hermosa Los Arcos andreek sustatutakoari.

Lurzoruarri eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 145. artikulan ezartzen duena betetzeko, expedientea hogeitugunez jarriko da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, pertsona fisikoek eta juridikoek Udal Idazkaritzan aztertu eta egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Moreda de Álava, 2009ko apirilaren 6a.– Alkate-lehendakaria, MIRIAM GARRIDO REMÍREZ DE GANUZA.

#### DONEMILIAGA

2785

##### **Txatarrok aldi batez biltegiratzeko eta metalak prentsatzeko jarduera, Asparrena-Donemiliagako industrialdean.**

Lajo y Rodríguez SA (LYRSA) empresas udal baimena eskatu du, txatarrok aldi batez biltegiratzeko eta metalak prentsatzeko jarduerarako, Asparrena-Donemiliagako industrialdean.

Horrako hori jakinarazten da, halaxe xedatzen baitu egin behar dela Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 58.2 artikulan, jarduera horregatik bere burua kaltetuta ikusten duen orok egoki deritzen iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan idatziz udaletxeko idazkaritzan. Horretarako hamabost egun baliodun izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Erdoñana, 2009ko apirilaren 3a.– Alkatea, M<sup>a</sup> CARMEN LIÑARES FILLOY.

#### HARANA

2669

##### **Egikaritze unitateko mugak behin betiko onartzea**

Udalbatzak, 2009ko martxoaren 31ko bilkuran, behin betiko onarpena eman zion Done Bikendi Haranako UE-2 egikaritze-unitatearen

durante el mismo tiempo que se estipule para la prohibición, el pago de los daños, si los hubiere, y el pago de una multa de hasta 300 euros.

2. El incumplimiento de alguna de estas sanciones por faltas muy graves supondrá la prohibición de acceder a cualquier instalación deportiva municipal durante el doble de tiempo establecido en la sanción de la falta muy grave.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, que fue aprobada por el Pleno del Ayuntamiento el Sesión Plenaria celebrada el veintisiete de noviembre de dos mil ocho, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación íntegra en el BOTHA, y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación.

En Moreda de Álava, a 6 de Abril de 2009.– La Alcaldesa-Presidente, MIRIAM GARRIDO REMIREZ DE GANUZA.

#### MOREDA DE ÁLAVA

2707

##### **Aprobación inicial. Delimitación de Unidad de Ejecución**

El Ayuntamiento Pleno de Moreda de Álava, en sesión ordinaria celebrada el día 1 de abril de 2009, acordó la aprobación inicial de la división de la Delimitación de la Unidad de Ejecución UE-8, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Moreda de Álava, promovida por Dña. M<sup>a</sup> José y Dña. M<sup>a</sup> Jesús Hermosa Los Arcos.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 145 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se expone al público por plazo de veinte días contados a partir del siguiente al de la aparición de este anuncio en el BOTHA, quedando el expediente a disposición de cualquier persona física o jurídica que quiera examinar el procedimiento en la Secretaría del Ayuntamiento, para que puedan hacer las alegaciones que estimen oportunas.

En Moreda de Álava, a 6 de abril de 2009.– La Alcaldesa-Presidente, DÑA. MIRIAM GARRIDO REMIREZ DE GANUZA.

#### SAN MILLÁN

2785

##### **Actividad “Almacén temporal de chatarras y prensado de metales” en el Polígono Industrial de Aspárrena-San Millán.**

Por Lajo y Rodríguez S.A (LYRSA), se solicita licencia municipal para la actividad de Ampliación de actividad clasificada “Almacén temporal de chatarras y prensado de metales”, en el Polígono Industrial de Aspárrena-San Millán.

Lo que se hace público de conformidad con lo dispuesto en el artículo 58.2 de la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, a fin de que quienes se consideren afectados en algún modo por la actividad de referencia, puedan formular por escrito, que presentarán en la Secretaría del Ayuntamiento, las observaciones que estimen pertinentes, durante el plazo de quince días hábiles a contar del siguiente, también hábil, a la publicación de este edicto en el BOTHA

Ordoñana, a 3 de abril de 2009.– La Alcaldesa, M<sup>a</sup> CARMEN LIÑARES FILLOY.

#### VALLE DE ARANA

2669

##### **Aprobación Definitiva Delimitación Unidad de Ejecución**

Por Acuerdo de Pleno de fecha 31/03/2009, se aprobó definitivamente la modificación de la delimitación de la UE-2 sita en San